

txintxarri



Berriro elkartzeko irrikaz

Udako Txokoekin aurrera egitea erabaki du Ttakun KEk, debekurik ezean, eta aldaketekin; udaleku itxiak, ordea, bertan behera utzi ditu / 16

Lanean hasi dira

Herriko hainbat komertzioak atek ireki dituzte, ez guztiek, zenbait aldaketa eginda / 6-9

Udala zenbait instalazio zabaltzen hasi da; kirol-guneak eta pistak faseka berrirekiko ditu / 2

LOKE gimnasiarekin eta Beltzak errugbi taldearekin errepasatu ditugu denboraldia eta egungo egoera / 11-12

Babestu zure begiak pantailetatik

%10eko deskontua
VARILUX LENTEETAN
+
MONTURA OPARI



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Zure ikusmen
osasuna zaintzen dugu

Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   



Maialen Chourraut kiroldegia hirugarren fasean irekitzea aurreikusten du udaleko kirol zerbitzuak. TXINTXARRI

Udal zerbitzuak berriro ere martxan, pixkanaka

Aire librean dauden kirol instalazioak ireki ditu berriro udalak. Faseetan antolatu du "deseskalatzea"; igerilekua izango da zabalduko den azken instalazioa. Liburutegiak ere zabaldu ditu berriz ere ateak, eta herritarrek bertako materiala itzuli edo hartu dezakete

Txintxarri

Aire zabalean dauden instalazioak ireki ditu Lasarte-Oriako Udalak astelehen honetan, maiatzak 25: frontoiak, tenis pistak, skate pista... Faseetan antolatu du "deseskalatzea": igerilekua zabaltzearena izango da laugarrena eta azkena. Bien bitartean, ikastaroen eta abonuen kuota zati proportzionalak bueltatzeko tramiteei ekin die.

Konfinamendua faseka arintzearen sistema erabiliko du Lasarte-Oriako Udaleko Kirol Zerbitzuak, bere jabetzakoak diren guneak herritarren eskura jartzen hasteko berriro. Lehenengoa astelehen honetan hasi da, maiatzak 25, aire zabalean dauden instalazioak berririkita.

Herritarrek bakarkako bi saio –tenis pistetan bi pertsonak jokatu ahalko dute batera, gehien jota– egin ahalko dituzte astero, gehienez, beti ere aurrez hitzordua hartuta 943 37 61 82 telefonoan. Seguritasun neurriak betetzea "ezinbestekoa" izango dela jakinarazi du kirol zerbitzuak. Aldagelak eta komunak itxita egongo dira. Erabiltzaileek maskara, kirol jantzi eta eskuoihalarekin sartu beharko dute instalazioetara, "nahitaez".

Dagoeneko martxan dagoenaz gain, beste hiru fase prestatu ditu kirol zerbitzuak, egutegi "orientagarri" batekin. Kirol instalazioen deseskalatzearen hurrengo faseetarako ez du data zehatzik jarri oraindik, baina

iragarri du zer irekiko duen: Michelingo pilotaleku itxia, bigarrenen; Maialen Chourraut kiroldegia, hirugarrenean; eta, udal igerilekua, laugarrenean.

Orain arte erabili ezin izan diren zerbitzuengatik lasarteorietarrek ordaindu dituzten tarifen zati proportzionalak bueltatzeko tramiteak hasi ditu kirol zerbitzuak.

Liburutegiak ere zabaldu ditu ateak berriro, kultur etxeko kafetegia moldatuta. Maileguan hartutako materiala itzultzeko ekainaren 5a izango da azken eguna, eta materiala hartzeko, berriz, aurrez egin behar da eskaera 943376181 telefonoan, edo <https://www.katalogoak.euskadi.eus> helbidean.



Asteazken eguerdian oroitutako koronabirusagatik hildakoak. TXINTXARRI

Koronabirusaren ondorioz hil direnak oroitzeko dolu egunak

Lasarte-Oriako Alkateak Espainiako Gobernuak dekretatutako hamar eguneko doluarekin bat egin du

Txintxarri

Lasarte-Oriako Alkateak Espainiako Gobernuak Covid-19 gaitzaren ondorioz hildako pertsonak oroitzeko dekretatutako dolu ofizialarekin bat egin du. Banderak haga erdian jarri dira eta asteazken eguerdian, minutu bateko isilunea egin dute Okendo plazan. Ministroen Kontseiluak asteazkenen onetsi du Covid-19 pandemiaren ondorioz hildakoen omenez dolu ofiziala deklaratzeko duen errege-dekretua eta Lasarte-Oriako Udalak bat egingo du oroimenezko ekimenarekin.

Dolu-aldiak hamar eguneko iraupena izango du; asteazken honetan hasi da (00:00etan) eta ekainaren 6ko 00:00etara iraungo du. Epe horretan, banderak haga erdian jarrita egongo dira eraikin publiko guztien kanpoaldean.

Horrez gain, asteazken eguerdian minutu bateko isilunea egin dute, hilabete hauetan birusaren

ondorioz hildakoak oroitzeko. Isilunea estatu osora zabaldu da.

Lasarte-Oriako Alkateak ere minutu bateko isilunearekin bat egin du, eta ekitaldiarekin bat egitera gonbidatu herritarrek, "lantokietako ateetan edo dauden lekuan". Horrela, osasun neurri guztiak betetz, Lasarte-Oriako Udala Gobernu eta alderdi politiko ezberdinetako kideak, langileak eta hainbat herritar Okendo plazan bildu dira Covid-19 gaitzaren ondorioz hildako pertsonak gogoan hartzeko.

Udalaz gain, Aterpea Lasarte-Oriako Merkataria, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak ere bere elkartasuna adierazi nahi die koronabirusagatik hildako herritarren senide eta lagunei. Horretarako, ekainaren 6ra arte, elkarteko kideek euren establezimenduen sarreretan biktimen oroipenean doluingolak izango dituzte.

Udalaren eta aldundiaren arteko mahai bateratua eskatu du ELOPek

Aldundiak iragarritako udal-finantaketaren murrizketari konponbidea emateko "ezkerreko blokea" eratzera deitu du

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko udalen finantzaketa %20 murriztu duela jakinarazi du Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiak. Hainbat udalek, Covid-19ak sortutako

ondorio sozioekonomikoei aurre hartzeko "talka-planak" zehaztu dituztela ekarri dute gogora, eta azpimarratu, aldundiak hartutako erabakiaren ondorioz, ez luketela behar adina finantzaketarik izango inbertsio

sozialei aurre egiteko. ELOPek ustez, "udal bakoitzaren kolore politikoa edozein dela ere", udalek finantziarioa merezi dute, osasun larrialdia eragindako ondorioei aurre egiteko.

Hortaz, ELOP alderdiaren proposamenarekin bat egitera deitu ditu EH Bildu eta PSE-EE, Espainian sortzen ari den akordio bideari jarraituz, "ezkerreko bloke bat eratzeko", eta lankidetzan irtenbideak bilatzeko.



ELOP alderdiko ordezkariak, 2019ko abenduko udalbatzarrean. TXINTXARRI



Udal Musika Eskolako musikariak, izako Santa Zezilia eguneko emanaldian. TXINTXARRI

Udal Musika Eskolaren gogoetan parte hartuz

Udal Musika Eskolaz hausnarketa egiten ari da udala, eta gogoeta horretan parte hartzeko deia luzatu die herritarrei. *Zer musika tresna berria jarriko zenuke Musika Eskolan?* galderari erantzuteko aukera zabaldu du. Ekainaren 3ra arte erantzun ahalko da galdera

Txintxarri

Udala gogoeta bat egiten ari da Musika Eskolaren etorkizunari buruz eta gaur egun ematen diren tresnen kopurua handitzeko beharrari buruz. Hori dela eta, Lasarte-Oriako herritarren eta elkarten iritzia ere aztertu nahi dute. Musika eskolako erabiltzaile diren ikasleen, gurasoen eta irakasleen iritziarekin batera, udalaren hausnarketan parte hartu nahi duten herritarrentzat, galdetegi bat prestatu dute, "erraz bete eta bidaltzekoa". Ekainaren 3a izango da *Zer musika tresna*

jarriko zenuke Musika Eskolan? galdera erantzuteko azken eguna, eta ondorengo esteka honetan egin ahalko dute interesatuek: <https://forms.gle/TkW93mmiYzusPhxt5>.

Musikak "berebiziko garrantzia" duela azpimarratu du udalak: "Beste kultur adierazpide askorekin gertatzen den bezala, Musika gizabanakoek sentipen, ideia eta pentsamendu desberdinak adierazteko eta irudikatzeke duten modua da". Ondare kulturalari dagokionez, musikaren "edertasun eta balio

estetikoa" garrantzi handikoak direla ere nabarmendu dute.

Lasaitasun mezua

Hezkuntzari dagokionean, pixkanaka "normaltasunera bueltatzea" aztertzen ari direla jakinarazi du, "beharrezko osasun eta segurtasuneko baldintzak" bermatuz. Iragarri du musika eskolak azterketa bat egin nahi duela horrek eskatzen dituen premien ingurukoa, hezkuntza-komunitate osoari ahalik eta ondoen txertatzen zaiola ziurtatzeko.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Igogailuan

Bada Coronavirusaren txio bat duela egun batzuetakoa, honela zioena: 'Desagertzen banaiz, zertaz hitz egingo duzue?'. Igogailuetan izaten da, ba, gairen bati buruz hitz egiteko premia, eta, paradoxikoki, behingoz badugula gai bat eguraldia ez dena, ezin igogailua inorekin konpartitu.

Segur aski, batzuk txutxumutxuka aritzeko baliatuko zuten: 'Atzo, laugarren pisuko bizilaguna hamar aldiz atera zen txakurra paseatzera. Eta umeak, berriz, lehenengo egunetik etxean sartuta. Ez dago eskubiderik'. 'Nik, berriz, alboko atariko aitona egunero ikusten dut goiz guztia gora eta behera ogiarekin. Gero, ez dezatela esan besteok kutsatzen ditugula'.

Bere kezkek ere azalduko lituzke norbaitek: 'Duela pare bat aste familia osoa egon ginen etxean sartuta izugarritzko katarroarekin, eta Coronavirusa izan bazen? 'baina galdu al zenuten usaimena?', 'ez', 'orduaz ez zen izango, baina inori ez diotenez testik egiten...'

Balkoiko giroa ere izango zen mintzagai: 'Txaloak eta Resistiré, eta gero, dantzan ibili ginen; zuek ez zineten animatu, ala?', 'ez, nazkatzen hasita gaude musikarekin, umea oso nekatuta iristen da, eta zaratarekin ezin da lokartu'.

Ziur baten bat animatuko litzatekeela ere etxean egindako janariaz hitz egitera: 'Gailetak, bizkotxoak, kroketak... denetik egin dugu, horrela jarraituz gero, ez gara atetik kabituko'.

Ikusi, usaindu (edo ez), entzun eta dastatutakoaz hitz egingo genuke igogailuan, baina zer gertatzen da ukitutakoaz? Hiru hilabetez ikusi ez dugun senidea ezin muxukatu, lagunarekin parkean ezin jolastu, familiako norbait galdu duena ezin besarkatu... Ukitzen uztearena zein fasetan dator?

Euskal presoen aldeko enkartelada ibiltaria gaur, Elizatze plazatik

Bi hilabeteko etenaldiaren ostean, gaur, ostirala, 20:00etan Elizatze plazatik Okendo plazara enkartelada ibiltaria egingo da euskal presoen eskubideak aldarrikatuz. Koronabirusak eragindako egoera dela eta, segurtasun neurriak betetze aldera, maskarak eramateko deia egiten dute antolatzaileek.

Okendora iristean Lasarte-Oriako euskal presoen egoraz hitz egiteaz gain, Sarek martxan jarri berri duen Izan bidea. Ibiltarien sarea dinamika azalduko dute.

Horrez gain, euskal preso eta iheslariaren egoerari irtenbidea emateko urratsak eman nahi du Sarek, eta erronka bat plazaratu du; Euskal Herriak duen biztanle-kopuru adina kilometro egitea da, hau da, 3.127.326 kilometro. Gaurko ekitaldian azalduko dute egitasmo hori xeheago.



NOAIA
BIDAIK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

943 37 36 13

Ordutegia: **09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaia.eus

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Aurpegiko eta gorputzeko azala

✓ BERROREKATU

✓ BERRESKURATU

✓ BIRSORTU



LASARTE-ORIA

Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean.

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria



Konfinatuta horrenbeste denbora pasa ostean, gustura hartuko zaitugu gure artean berrituz



Oriako frontoi paretik abiatu dute desfilea eta herriko auzoak zeharkatu eta gero, Okendo atzealdean amaitu dute. TXINTXARRI

Umore alaiez ekin dio Kukukak Hamabostaldiari

XVIII. Hamabostaldia abiatu du Kukuka antzerki eta dantza eskolak. Astelehean, herriko auzoetan barrena egindako desfilearekin eman diote hasiera, eta asteon eta hurrengoan, sare sozial eta web orrialdeen bidez ikusi ahal izango dira aurtengo dantza eta antzerki lanak

Txintxarri

Astelehen arratsalde alai eta koloretsua bizi arazi diete Kukuko lagunek lasarteoriatarrei; aurtengo Hamabostaldiari hasiera emateko, desfile animatua egin dute. Koloretako jantziak soinean eta bizikleta gainean, herriko auzoak bisitatu dituzte antzerki eta dantza eskolako irakasleek. Bozgorailuak zeramatzen furgonetako musikak lagunduta, dantza saio ederrak egin dituzte balkoietara irten diren herrikideekin batera.

Arratsaldeko lauetan abiatu dira Oriatik, eta Zirkuitu ibilbidean barrena, Txartel ingurua zeharkatu dute. Hortik, Txartel gaineko auzora gerturatu dira, eta Zirkuitu ibilbidera jaitsi dira gero. Abesti eta abesti artean, Kale Nagusira heldu, eta Ola kaletik Isla plazara joan dira. Bertan ere geldialditxoak eginez, Hamabostaldia iragartzeko abesti bat dantzatu dute. Antxuenea plazara iritsita, dantzan jarraitu dute, eta musika entzun eta berehala irten dira leihoetara bizilagunak. Izan da dantza edo txalo egitera animatu denik.

Zumaburu kaletik, Kale Nagusira hartu dute berriro ere, eta Arkupe taberna pareko biribilgunetik Goikalera igaro dira. Antxuenea plaza eta

kiroldegiko plaza igaro, eta Andre Joakina Enea haurreskolako aldapatik, Zabaletara abiatu dira. Basotxo plazan elkartu dira, eta bertan aritu dira dantzan, bizilagunekin.

Goiegiko aldapatik beheranzko bidea hartu, eta Sasoetako bizilagunengana joan dira. Andatza eta Jaizkibel plazetan gorputzak astinduta, Buruntza kaletik Atsobakarreko Caddie plazan izan dira, eta handik, Iñigo de Loiola izan da hurrengo geltokia. Bertako bizilagunen leihoetako harrerarekin dantza saioa amaituta, Uistin plazara joan dira, eta horren ostean, azken geldialdia egin dute, Okendo plaza atzeko arkupeetan. Jende ugari egin die harrera plaza atzean, eta denak elkarrekin dantzan aritu dira, umore on eta alaietan.

Segurtasun neurri guztiak kontutan hartuta egin dute asteleheneko ekintza; maskarak jantzita eta segurtasun distantziak mantenduz.

Hamabostaldi ezberdina

Koronabirusak sortutako egoerak "lekuz kanpo" harrapatu zituela azaldu du Miren Zaldúa Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak. Klaseak eta asteroko saioak bertan behera geratzea "oso gogorra" egin zitzaizen arren,

ikasleei prest zeuzkaten dantzekin eta antzerki gidoiekin jarraitzeko eskaera egin zieten.

Hasiera batean ez zuten uste hain luze joko zuenik osasun larrialdiak baina, egunak aurrera joan ahala, eta egoeraren larritasuna ikusita, ikasturtearekin aurrera egiteko "beste bide batzuk" bilatu behar izan dituzte. Ikasleekin "online" jarraitu dute harremanetan: "proposamenak bidaltzen genizkien bideo bidez eta beraiek bueltan bidaltzen zizkiguten, adibide batzuk gure Facebookeko orrian zintzilikatu ditugu".

Gauzak horrela, aurtengo hamabostaldia "birtualki egitea" erabaki dute. Horretarako, irakasle bakoitzak proposamen bat bidali die ikasleei, eta ikasleek grabatutako bideoekin ikus-entzunezkoak grabatu dituzte, eta datozen egunetan, eskolaren web atarian (www.kukuka.eus) eta facebookeko orrialdean zintzilikatuko dituztela iragarri dute: "Egunean hiru edo lau bideo txiki igoko ditugu, bi astetan zehar".

Udalari eskerrak helarazi nahi izan dizkiote, euren ekintzak aurrera eramateko jarri dituen "erraztasunengatik eta izandako eskuzabaltasunagatik".



Leihoetara irtendako bizilagunekin batera aritu dira dantzan. TXINTXARRI



Hasiera koloretsu bezain alai eman diote aurtengo Hamabostaldiari. TXINTXARRI



Okendo plaza atzeko dantzaldiarekin amaitu dute desfilea. TXINTXARRI

Nerea Eizagirre

Duela urtebete, Aste Santuan zehazki, Intza Alkain lasarteoriatarak, Edurne Azkaratek eta Mikel Iburgurenk Artedramak Aulestin antolatutako topaketan bat egin zuten. Ideiak, gogoak eta nahiak konpartitu zituzten saio ezberdinetan eta euren antzerkiarekiko interesak elkarrekin lan egitera bultzatu zituen. Pausoz pauso Formol Laborategia sortu dute eta Gasteizko Gazte Sortzaileak diru laguntzari esker, bere lehen lan motza *Maketa* aurkeztu behar zuten. Larrialdi egoerak, aldiz, asmoak zapuztu zituen. Intza Alkain (Lasarte-Oria, 1995) herritarrekin solas egin dugu, Formol laborategiari buruz gehiago jakiteko.

Zergatik sortu duzue Formol? Zein helburu ditu?

Euskal antzerkigintzan gure alea jarri nahi genuen eta publiko gaztea antzokietara erakarri nahi dugu. Gazteei eta gure belaunaldiko jendeari antzokiak beraientzako lekuak direla esateko beharra dagoela ikusten dugu. Gure belaunaldiko gainerako sortzaileekin saretzea ere ikusten dugu.

Belaunaldi hitza oso presente daukagu Formolen. Horrek batzen gaitu, belaunaldi berdinekoak izatea eta nahi amankomun batzuk ditugula.

Gazteentzako lanak bakarrik egingo dituzue? Eta gazteei eragiten dieten gaiak jorratuko dituzue?

Ez. Berez, belaunaldi guztientzako lanak eskainiko ditugu. Pieza labor bat egina daukagu, *Maketa* izena duena. Horretan, bereziki, gure belaunalditik hitz egiten dugu.

Horrek ez du esan nahi belaunaldi horretarako bakarrik egingo dugunik. Denontzako izango da, eta ikus-entzule bakoitzak bere belaunaldiaren arabera istorioa modu batera ulertuko du eta ondorioak aterako ditu.

Obra sortzean, ideiak partekatzen, konturatu garena da gure belaunaldiko jendeak bizitzen dituen gauza asko, nahiz eta gizartea ez izan berdina, oso zabalak direla. Eta nahiz eta testuingurua ezberdina izan, agian hitz egingo duguna belaunaldia guztietarako baliagarria da. Denek bizi dutelako era batera edo bestera berdina edo antzekoa.

"Antzerkia egiteko batu gara; publikorik gabe, zaila da"

INTZA ALKAIN FORMOL LABORATEGIKO KIDEA

Formol Laborategia lehen pausoak ematen ari zen itxialdia hasi baino lehen. Lehen lanaren aurkezpena, proiektuak... Guztia geldirik dute, egoeraren bilakaeraren zain



Intza Alkain eta Mikel Iburguren '*Maketa*' obraren momentu batean. Edurne Azkaratek zuzendari lanak egin ditu. FORMOL LABORATEGIA

'Maketa' lana aipatu duzu...

Gasteizko Gazte sortzaileen diru laguntza jaso genuen eta horren bitartez lehen pieza sortu dugu. Berez, apirilaren 4an estreinatu behar genuen Baratzar aretoan antolatzen den Zurrunbilo jaialdian, Gasteizen. Baina egoera dela eta, azarora atzeratu dute. Hemendik azarora *work in progress* bat aurkeztu behar genuen, osatu gabe zegoen lagin bat bezala. Publikoarekin kontrastatu nahi genuen.

Orain azarora bitartean, lana garatzeko tarte izango zenuten?

Batera geundela harrapatu gintuen itxialdiak gu; orduan jakin genuen hurrengo egunean konfinatuta egongo ginela. Forma emanda genion *Maketa* lanari eta hortxe daukagu gehiago ezin izan dugu egin.

Ez dakigu aukerarik izango dugun azarora baino lehen elkartzeko eta jarraitzeko lagin horri pixka bat buelta ematen edo iritsiko den azaroan egun

hori eta orduan izango den lehen aldia itxialdiaren ostean elkartzen garena. Ez dakigu... Beraz, hori daukagu, lagin hori eta ea zer egiten dugun horrekin.

Beraz, larrialdi egoerak zuen jardunean eragin du?

Bereziki egin duguna da genituen testuak berrikusi eta berriatzi. Bestelako lanak ere egin ditugu, diru laguntzak eta elkarteko paper lanak egin... Horrela ibili gara, elkarrekin ere guk sortu dugulako. Paper kontu guztiak guk daramatzagu eta esperientzia berri bat da guretzako.

Baina sortze prozesuarekin jarraitzea egoera honetan zaila da. Guk daukagun lan moldea laborategi modukoa ulertzen dugu, horregatik laborategi izena ere. Eta da elkarrekin, zerotik elkar lanean sortzen hasi, ideiak partekatu, probatu, 'hau ez, hau bai'... Harreman hori behar dugu.

Espero dugu pixkanaka tokiak irekitzen doazen heinean berriro elkartu eta bertan elkarrekin lanean jarraitzea. Bestela uste dut ezingo genukeela distantzian ezer aurreratu. Nik behintzat oso zaila ikusten dut.

Diru laguntzak aipatu dituzue. Beharrezkoak dira lehen pausoak ematen dituzunean...

Laguntzarik gabe zaila izango genuke aurrera egitea, talde berria baikara. Gazteak garen aldetik, hasiberriak. Batu gara

eta elkarrekin, talde edo konpainia aurrera ateratzea oso zaila da babesik gabe. Gogoia eta hori guztia badaukagu, eta hori oinarritzakoa da proiektu batean aurre egiteko, funtsezkoa, baina baliabideak ere behar dituzu, ekonomikoak, espazio bat eta horrelako diru-laguntzek hori ahalbidetzen dute.

Baina gogoek bakarrik ez dute ematen proiektua aurrera eramateko.

Saretzea ere aipatu duzu helburu bezala...

Bai, gure belaunaldiko gainerako sortzaileekin sarea sortu nahi dugu. Baita ere ikusteko badagoela jendea, bai teknikoak, bai musikariak... gure belaunaldian sortzen.

Baina beste belaunaldien laguntza ere jasotzen ari gara. Adibidez *Maketa* pieza Metrokoadroak lagunduta egin dugu, beraiek ere lagundu digute pixka bat.

Lanean jarraitzeko asmoa duzue?

Sortu dugun *Maketa* lanak, pieza laborra izan behar zuen denbora aldetik. Horrelako piezak formatu txikitik hobeto egiten dira, *Maketa* horrela sortu dugu guk. Baina asmoa dugu sakontzeko eta antzoki batek eskaintzen dizkigun baliabideak aprobetxatzeko obra bat egitea.

Printzipioz formatu guztietara gaude irekita. Gainera hasi berriak garenez, gauzak egiteko gogoak ditugu. Baina ikusi beharko da. Neurri pila ari dira jartzen kultur ekintzak aurrera eramateko eta horrek ere atzera egitera jotzen du. Baina horrela ere nola egingo duzu... Adibidez, guk *Maketa* publikorik gabe ezingo genuke egin. Behintzat publikoari etortzen uzten badiote...

Eta ikusleengana iristeko beste formatu batzuk aztertu dituzue? Antzerkia grabatzea, esate baterako.

Grabatzea, ez dakit hori antzerkia den. Guk, hain zuzen ere, antzerkia egin nahi dugu, zuzenekoa. Adibidez, egoera hau hasi zenean, guk dena utzi genuen *pause* batean, sortzeari utzi genion eta niri behintzat mezuak etortzen zitzaizkidan, 'jo ba moldatu, zeezer egin ikus-entzunezkoetan...' Baina hori ez da gurea, orain arte egin duguna antzerkia da eta gu horretarako batu gara, antzerkia egiteko. Eta hori, publikorik gabe, zuzeneko harremanik gabe zaila da. Egin dezakegu beste zerbait, baina antzerkia, berez, ez.



Herritarrek erosketa poltsekin edo karruekin egiten dituzten joan-etorriak gero eta ohikoagoak dira. Komertzio gehienek lanari ekin diote, baina ez guztiak. TXINTXARRI

Herriko merkataria, fase desberdinetan

Konfinamendua arintzen doan heinean, herriko merkataria, ostalari eta enpresak —ez guztiak— eguneroko martxa hartzen saiatzen ari dira, zailtasunak zailtasun, beti ere beharrezko segurtasun eta higiene neurriak hartuta. Gremio eta sektore desberdinetako protagonistekin harremanetan jarri da TXINTXARRI aldizkaria, euren errealitatea zein den ezagutzeko

Irati Zatarain - Iñigo G. Sarobe

Lasarte-Oriako kaleek beste itxura bat daukate azken egunetan. Itxialdia arintzen hastearekin batera, berpiztu egin dira. Eragina izan du horretan ere herriko denda, komertzio eta enpresa gehienek euren atea irekitzea berriro, zerbitzua errealitate berrira egokituz.

Motorrak piztu dituzte gehienek, baina gremio desberdinetako negozioek ez dute martxa bera sartu; ez dira erritmo berean lanean ari. Errealitate ekonomiko eta laboral desberdin bat dauka bakoitzak, baina euren onena ematen ari dira bezeroei kalitatezko zerbitzua emateko, legeak zehazten dituen segurtasun eta higiene

baldintzak betez beti ere: edukiera maximoa, lokal barruan arreta eskaintzeko baldintzak, bi metroko segurtasun distantzia, negozioak sarritan desinfektatu beharra...

Konfinamenduaren arintzearen bigarren faserako baldintza horiek tarteko, zenbait ostalarik ezin izan dute euren negozioetako pertsiana igo oraindik, beraientzat ez delako bideragarria tabernak irekitzea, ezin badute terrazarik

MANIFESTATU EGINGO DIRA OSTALARIK LARUNBAT HONETAN, 18:00ETAN, OKENDO PLAZAN

jarri. Lokal barruan arta ditzakete bezeroak, baina mahaietan, eta segurtasun distantziak mantenduz. Zenbaitentzat, zaila da hori.

Manifestazioa larunbatean

Egoera horren aurrean Lasarte-Oriako Ostalaritza osatzen duten tabernariak —60 baino gehiago batu dira taldera— ekintza bat egingo dute bihar, larunbata, maiatzak 30, Okendo plazan, 18:00etan. Manifestatu egingo dira, euren egoera zein den ikusarazteko eta instituzioei "laguntza eskatzeko". Tabernak irekita dituzten ostalariek bi orduko geldialdia egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, *Lasarte-Oriako Ostalaritza SOS* lelopean.

"Instituzioek erraztasunak ematea nahi dugu, herriko establezimendu guztiak ireki ahal izan dezaten, bakar bat bera ere atzean utzi gabe". Osasun krisia lehertu aurretik zabalik zeuden negozio guztiak mantendu nahi dituzte, eta sektore horrek sortzen dituen lanpostu guztiak, 400 inguru, ere bai, familia askoren sostengo direlako. Aldarrikatu dute ostalaritza establezimenduek

'BERRIRO IREKITZEKO KANPAINA' EGINGO DUTE ATERPEAK ETA UDALAK EKAIN HASIERAN

ATERPEA

Ramon Ormazabal Aterpea Merkataria eta Ostalarien elkartearen lehendakari ohiarekin hitz egin du TXINTXARRI-k, merkataritzaren egoerari buruz. Bere ustez, herritarrek "oso-oso ongi" erantzuten ari dira, herrian erosten, solidarioki. "Kontzientziatuago daudela esango nuke".

Aterpea adi dago instituzioetatik etorriko diren laguntzei, Ormazabalek zehaztu duenez: uste du "borondate onez" lanean ari direla Eusko Jaurlaritza eta Lasarte-Oriako Udala, baina "zertxobait azkarrago erreakionatu ez izana" faltan bota du. "Laster onartuko dituzte laguntza zuzenen oinarriak; erosketa bonuenak, beranduxeko".

Etorkizuneko aurreikuspenak "baikorrak" direla dio Ormazabalek, baina oso gertutik jarraitu beharko dela Covid-19aren bilakaera, udazkenean indartsu berragertuko balitz, horrek eragina izango lukeelako merkataritzan eta ekonomian ere. Aterpeari dagokionez, zehaztu du ari direla kanpaina berriak lantzen eta pentsatzen; dendetan erosteko baleetan oinarrituko dira, erosketak herrian egitea sustatzeko.

"asko" ematen diotela Lasarte-Oriari, alor ugarian.

Udalarekin bilerak egiten ari dira, egoera zein den ikusi eta har daitezkeen neurriak aztertzeko. Ostalariek nahi dute "konpromiso irmo eta sendo" bat udalaren aldetik. Aztertzen ari diren gaietako bat da herriko espazio publikoak erabili ahal izatea terrazak jartzeko.

Ostalari, komertzio edo enpresa izan, Aterpeak eta udalak iragarri berri dute *Berriro Irekitzeko Kanpaina* egitasmoan parte har dezaketela. Ekainaren 1etik 5era osasun materiala hartu ahal dute Antonio Mercero gunean, ekainaren 1etik 5era, 15:00etik 16:30era bitartean.

BIDAIA-AGENTZIA

Noaoa Bidaiak Bezeroei arreta eskaintzea lehenetsi dute Noaoa Bidaiak agentziako langileek osasun krisi honetan ere: itxialdiaren aurreneko asteetan, etxetik; gero, etxeko lana eta bulegokoa tartekatuz; eta, maiatzaren 11tik, bulegoan arreta eskainiz, 09:30etik 13:30era, goizez, beti ere legeak zehazten dituen osasun eta segurtasun baldintza guztiak bermatuz. Bezeroek aurrez erreserbatu behar dituzte hitzorduak.

Egoera apurka-apurka hobera doala ikusita, bezeroak "bidaiatzeko animo askorekin" daudela azpimarratu du Garbiñe Martijak, eta horrek pozten duela, baina agentzian nahiago dutela tentuz jokatu, eta erreserbarik ez egiten hasi, ez delako batere ziurra nolakoa izango den egoera uztail hasieran, hasiera batean mugak berriz irekitzen dituztenean turismoa egiteko. "Nahiago dugu egoera aztertzen joan eta



Noaoak goizez artatzen ditu bezeroak, Hipodromo Etorbideko bulegoan. TXINTXARRI

momentuan momentukoa kudeatu, orain erreserbak egin eta gero bertan behera utzi baino".

Hipodromo Etorbideko bulegora eskaera asko iristen ari dira. 943 37 36 13 telefonoan, adibidez, jarraibide-sorta bat grabatu eta erantzungailu automatikoan jarri dute, hots egiten duten bezeroek jakin dezaten info@

noaoa.eus helbide elektronikora idatzita hartu behar dituztela hitzorduak. "Telefono deiak normal hartuko bagenitu, bezeroak artatzen ari garen bitartean jo egingo luke behin eta berriro, eta horrek oztopatu egingo lituzke gure lan erritmoa eta zerbitzua".

Osasun krisia lehertu aurretik erreserbak eginak zituztenei itzulketak egiten ari da Noaoa.

Azken asteetan, esan bezala, bulegotik: "Neurri guztiak beteta, arreta presentzialari berrekin diogu, bezeroak informatuta mantentzeko modu onena baita".

Aurtengo udara begira eskaera mordoa ari dira jasotzen: batzuk, ekain amaierarako edo uztail hasierarako. "Iruditzen zait oso kontuz ibili behar dugula, birusak gure artean segitzen du oraindik, ez dakit gizartea horretaz guztiz kontziente den", dio Martijak. "Nork esaten dizu datozen aste edo hilabeteetan birusa indartsu berrager ez daitekeenik, arduraz jokatzeko ez badugu? Lleidan hori gertatu da berriki". Hori dela eta, Noaoak nahiago du tentuz jokatu hurrengo hilabeteetako bidaia eta erreserba posibleak kudeatzerakoan. "Gainera, oraindik ez dute zehaztu zein baldintzatan hasiko diren lanean hegazkin konpainiak edo hotelak, esate baterako".


ENPRESAK



Langile bat, beharrean. TXINTXARRI

Antza Grafikagintza Oriako industrialdean kokaturik dagoen grafikagintza enpresa da. Jarduera nagusia aisialdiarekin, kulturarekin eta paperezko komunikabideekin lotuta dute. Sektore horiek, koronabirusa dela eta, geldialdi bat izan dute, eta horrek beraien jardueraren beharakada larria ekarri du.

Antzak eskeintzen dituen zerbitzu motagatik, telelanaren bidez, ekoizpen-jardueraren %8a baino ezin dute egin. Gaur egun, %40ko okupazioan daude eta aldi baterako lan-erregulazio egoeran. Etorbizuna zalantzarikoa da, susperraldia motela izaten ari da baina haien bezeroen babesarekin aurrera ateratzea eta lanpostu guztiei eutsi ahal izatea espero dute.



Orian dago fabrika. TXINTXARRI



Asier Iribar, bezero baten autoa desinfektatzen, tailer atarian. TXINTXARRI

TAILERRAK

A2car Tailerrak Zumaburu Plazako tailerreko ateak zabalik ditu A2carrek maiatzaren 11tik, Asier Iribar arduradunak zehaztu duenez. "ABEE egoeratik atera nuen langile bat eta biok hasi ginen bezeroak artatzen egun horretan". Segurtasun eta higiene neurri zorrotzak ezarri dituzte lan egiteko: bezeroek ezin dute tailerrera sartu, zuzeneko kontaktua ahalik eta gehien saihesteko; maskara babesgarriak eta eskularruak jantzita, ibilgailuak bi aldiz desinfektatzen dituzte –konponketak egiten hasi aurretik eta jabeari entregatu baino lehen–; eta autoen barrualdea material babesgarriekin estaltzen dute, plastikoarekin, konponketak egiten hasi aurretik. Tailerra berririki zutenetik, ez zaie lanik falta.

ESTETIKA ZENTROA

Maite Estetika 30 urte baino gehiago dira Maite Estetika Zentruak ateak ireki zituela Lasarte-Oriako erdigunean. Urte guzti hauetan horrelako egoera inoiz ez dutela bizi baieztatzen du negozioko arduradunak Maite Arroyok. Alerta egoeran noski, itxita egon da zentrua baina lehenengo fasea hasi zenetik eta garbitasun neurri guztiak kontutan izanik ateak zabaldu zituzten ilusio handiz, beti ere aurretik ordua hartuta. Estetika, manikura, pedikura, makillajea, aurpegi eta gorputz tratamenduak, solariuma, depilazioak... bezeroarekin kontaktu zuzena dute langileek, horregatik segurtasun berme guztiarekin daude lanean. Protokolo bat ere ezarri behar izan dute eskuak ondo garbitu hasieran eta ondoren, oinetakoak desinfektatu, musutakoak jantzita uneoro. Ez du batere errazten egoera honetan lan egitea, baina osasuna lehenetsi dute eta horrela jarraituko dute gogo handiz.



Uistin kaleko Maite Estetika lehenengo faseatik zabalik dago. TXINTXARRI

TABERNAK



Buenetxeak gogotsu ekin dio lanari aste hauetan. TXINTXARRI

Buenetxea. Maiatzaren 11n igo zuen pertsiana Yolik, tabernaren jabeak. Lehenengo egun hori izan zen zailena, bere hitzetan, baina egunak pasa ahala moldatu dira egoera berrira eta gustura ari dira, "oso-oso lanpetuta" badaude ere. Bezeroak terrazetan artatzen dituzte nagusiki; herritarrek ezin dute barrara joan eskatzera.



Astelehenetik zabalik dago taberna Okendo plazan. TIBURTZIO-ARTIZAR

Artizar. Okendo plaza parean dagoen tabernak aste honetan igo du pertsiana. Ordura arteko egun eta asteak "oso gogorrak" izan direla nabarmendu dute langileek, gizarte osoarentzat, eta ostalarientzat bereziki. "Bi hilabete hauetan galdutakoa ez dugu inoiz berreskuratuko".



Jalgik astelehen honetan igo du pertsiana berriro. TXINTXARRI

Jalgi. Bi hilabete pasatxoren ostean, Jalgi Kafe Antzokiak astelehen honetan igo du pertsiana berriro: lokal barruan zenbait mahai egokitu ditu bezeroentzat, eta terrazan ere bai, segurtasun eta higiene neurri guztiak errespetatuz.

JATETXEAK

Casa Humada-Txixtardin Koronabirusak eragin du baita ere Txixtardin jatetxearen jardunean. Sergio Humada chefak (Donostia, 1984) Casa Humada egitasmoa martxan jarri zuen irailean; zutabeetako bat da Txixtardin. Covid-19a dela eta, hasierako planteamendua moldatu egin behar izan du. Urtea bukatu arte, gutxienez, goiko solairuak taberna gisa funtzionatuko du –berezko ideia da gune gastronomiko sortzaile bat abian jartzea bertan, 30 bat pertsonarentzat, Shuma izenekoa—. Beheko solairuko jantokia, Txixtardinena, ondo bidean, hirugarren fasean irekitzea aurreikusten du Humadak, beharrezko segurtasun eta higiene baldintza guztiakin. "Ikusiko dugu noiz egin dezakegun hori, badirudi ekain hasieran izan daitekeela".

Bien bitartean, terraza "leporaino" dagoela nabarmendu du Humadak. Goiko solairuan jarri dituzte



Txixtardin jatetxea itxuraberritu du Sergio Humadak. TXIXTARDIN JATETXEA

mahaiak, espazio gehiago daukatelako bete beharrezko segurtasun neurriak errespetatzeko. Aste hauetako eguraldi ona laguntzen ari zaiela dio, eta herritarrek oso gustura hartu dutela berrikeria.

Osasun krisia lehertzearekin batera, egoerara moldatzen saiatu eta etxeko zerbizua martxan jarri zuten, Lasarte-Oriako zein inguruko herrietako biztanleentzat.

Datozen hilabeteetan ere jarraituko dute menua osatzeko aukeratu dituzten platerak bezeroen etxetara eramaten.

Udara begira ekintza gehiago egin nahi dituzte, goizez, arratsalde zehar, herritarrek ahalik eta gehien goza dezaten. "Iluntzean ez du horrenbeste freskatzen honezkero". Urte bukaera baino lehen egitasmo gehiago martxan jartzea aurreikusten du Sergio Humada chefak.



Arantxa Zubillagak datorren astean zabalduko du Larre. TXINTXARRI

Larre Taberna. Egoera berriarekin aldaketak etorri dira Larrerara. Orain arte jatetxe bezala ezagutzen genuena, hemendik aurrera taberna moduan soilik irekiko ditu ateak. "Ilusio handiz" hasten dute bide berria eta Zabaleta auzoan taberna giroa sortzeko irrikitan daude. 25. urteurrena ospatuko dute urte bukaeran, eta, Arantxa Zubillaga jabeak aipatu duenez, jatetxe bezala

ez funtzionatzearena "aurretik pentsatua" zeukan. "Orain, egoera berri honetan, zailtasunak izango ditugu, eta erabaki hori hartzera bultzatu nau".

Larre itxita egon den bitartean, komunean obra egiteko aprobeztatu dute, eta, dena garbitzean, ateak zabalduko dituzte berriro, segurtasun eta osasun neurriak kontuan hartuta.

AUTOBUSAK

LuisCar Garraio enpresaren egoera "oso kritikoa" dela adierazi du negozioaren jabe Luis Carlos Gonzalezek: "Ez dugu autobusik mugitu martxoaren 13tik; dirurik ez dugu ingresatu denbora horretan, beraz". Enpresako hamabi langileak ABEE batean daudela jakinarazi du. 3. fasean lanean hasi daitezkeela uste du, jardueraren erdian. Ondo bidean, ekainaren 8an. "Ikusiko dugu".



LuisCarren autobusak. TXINTXARRI

DENDAK



Salmenta eta aholkularitza, segurtasunez. TXINTXARRI

Arregi Elektrizitatea Ez du egun bakar batez ere jarduera eten: bi astez dendako atea itxita egon arren, online denda eta salbuespeneko gutxieneko zerbitzua eman zuten etez etxeko zerbitzuarekin. 'Normaltasun berrira' egokitu direla adierazi dute eta segurtasun neurri guztiak errespetatuz lanean ari dira.



Ezker-eskuin: Naroa, Patxi eta Ana. TXINTXARRI

Patxi Larrañaga Herritarrak ohitzen hasi direla baieztatu du Larrañaga-Iparragirre familiak. Hasieran, bezeroak "urduri eta presaz" etortzen ziren harategira, eta leher eginda bukatzen zuten hiruek. Segurtasun neurriekin lan egiten dute, noski; maskarekin egun guztian egoteagatik itotze sensazioa dutela baieztatu dute.



Irribarretsu hartu du Yolandak TXINTXARRI. TXINTXARRI

Alba Moda Ziurgabetasuna hitza erabiliko luke Yolandak, Alba Moda jantzi-dendaren jabeak, gaur egun bizi duen egoera deskribatzeko: "Alde batetik, Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako jende ugari laguntzen ari zait; bestetik, batzuek esaten didate ez direla fio oraindik, eta ez direla etorriko dendara jantziak erostera".



Karmen, lokalaren atarian. TXINTXARRI

Berasategi kafeak Lokal barruan artatzen dituzte bezeroak, segurtasun panel baten bitartez beharrezko distantzia mantenduz. Hilabete hauetan irekita egon da, elikagaiak ere saltzen baitituzte. Dena den, euren diru-sarreraren zati handiena tabernak hornizetik dator, eta itxita egon direnez duela gutxira arte, orain hasi dira martxa hartzen.

AKADEMIAK



Meka Lekuko irakasleak etxetik ari dira lanean. MEKA LEKU AKADEMIA

Meka Leku Akademia irekitzeko "sekulako gogoz" daude Meka Lekuko irakasleak, 'normaltasun normalera' iristeko, ez berrira, baina, oraindik, ez dute egingo. "Ikusi nahi dugu zer nolako bilakaera daukan Covid-19ak datozen asteetan; uste dugu ekain erdialdean balora dezakegula egoera hobeto, datuak eskuetan, eta orduan erabaki ireki edo ez". Gustatuko litzaieke uztailean berrekitzea klase presentzialei, bultzadaxko bat behar duten ikasleei laguntzeko. Ateak berriro zabaltzeko erabakia hartuz gero, legeak dioena errespetatuko lukete, "segurtasun osoz" ireki ahal izateko neurri guztiak aintzat hartuz.

Bi hilabete pasatxo daramatzate klaseak etxetik ematen. Hasieran, egun batetik bestera aldatu behar izan zuten euren lana egiteko modua, imajinazioa erabiliz batez ere, baina, asteak pasa ahala, ohitu dira, teknologia berriek eskaitzen dituzten aukerak baliatuz. Konfinamenduaren arintze faseek apenas eragin duten euren lanean, ez bada ikasleak kalera irteten hasi direlako, eta ordutegiak zertxobait moldatu behar izan dituztelako.

Egoera hau "lehenbailehen" bukatzeko irrikaz daudela diote Meka Lekuko irakasleek, eta ikasleak ere hala ikusten dituztela. "Gizartean gertatzen dena islatzen da eurengan: beldurra, nekea, adaptazioa eta adaptazio eza, leporaino egotearen sentsazioa... Ebaluazio azterketak datoz laster, eta batez ere erritmoa jarraitzeko arazo gehien dituztenei kostatzen zaie dinamikari eustea".

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskarazDESKONTU BEREZIAK HERRIKO
KOMERTZIO ETA OSTALARIEI

- PUBLIZITATEA
- PUBLIERREPORTAJEAK
- PUBLIZITATEA INTERNETEN
- GIDA KOMERTZIALA...

EGOERA ZAIL
HONETAN DENOK
BATERA AURRERA
EGINGO DUGU!ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66


LASARTE-ORIA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

GREMIOEN GIDA 2020



Herriko GIDA KOMERTZIALA sarean ikus dezakezu
www.txintxarri.eus/gida

 Barne-Diseinua

 Iturgintza

 Igeltseritza

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
 - HORMA-ARMAIRUAK
 - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943 361 471
www.sugatecocinas.com

ILLARRETA
ITURGIINTZA
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

ANTONIO ARREGUI, S.L. eraikuntza materialak
GAMMA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNEKO KONPLEMENTUAK

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA Oria Etorbidea, 6 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 36 64 73 aarreguis@gmail.com	ERAKUSKETA Goikale, 2 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 36 59 47 Faxa: 943 36 59 47
--	---

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

 Elektrizitatea

 Kristaldegia eta leihoak

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

DEL ORIA KRISTALDEGIA

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra



Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria
Tlf.: 943 36 23 52 607234522
www.cristaleriadeloria.com

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

ISU
28. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus
Hurrengo GREMIOEN GIDA ekainaren 26an kaleratuko dugu



Aurten ez da erakustaldirik izango, baina hurrengo ikasturtean trebezia guztiak erakusteko lanean ari dira gimnastak. TXINTXARRI

Lana, hurrengo urtera begira

LOKEko gimnastek denboraldi paregabea espero zuten, baina larrialde egoerak asmoak zapuztu dizkie. 2020. urteko Euskal Jokoak bertan behera geratzen direla jakitean, denboraldia amaitutzat eman eta hurrengoan hasi dira lanean

Nerea Eizagirre

Saltoak, itzulipurdiak, tresnak, musika... Maialen Chourraut kiroldegiko pistatik etxeko gelan egiteko moduko ariketak egitera. LOKEko gimnastek lanean jarraitu dute Alarma Egoera honetan.

Itxialdiaren erabakia jaso eta egoerara moldatzea zaila izan zela onartu du Maite Rueda LOKE Gimnastikako arduradunak. "Eusko Jaurlaritzaren agindua jaso, eta, egun batetik bestera, saioak bertan behera utzi behar dituzula aurkitzen zara, gurasoei saioen etenaldiaren berri eman behar diezula...".

Zalantza ugari sortzen zizkien egoera berriak, baina hilabetez hilabete egoera luzatu eta lehiaketak bertan behera geratu ahala argitu dira. "Gipuzkoako Gimnastika Federazioak martxoko lehiaketak bertan behera geratzen zirela jakitera

eman zigun; gerora, apirilekoak ere ez zirela egingo. Duela hilabete, Euskadiko Eskolarteko jokoak ere bertan behera geratuko direla jakin genuen".

Erabaki hori jasotzearekin batera, LOKEren denboraldia amaitu zela jakin zuten gimnastikako arduradunek. "Txapelketa horren ostean, ekainaren hirugarren astean amaitu ohi zen gure denboraldia. Beraz, argi dago LOKEren denboraldia amaitu dela", onartu du Ruedak. Ondorioz, LOKEko gimnastek zituzten helburuak gelditu geratu dira. "Gure kirolariak berriro lehiatzen ikusi eta

LOKEKO GIMNASTEK DATORREN URTERA ARTE ITXARON BEHAR DUTE HELBURUAK BETETZEKO

helburuak betetzeko hurrengo denboraldira itxaron beharko dugu".

Hala ere, gimnastak alerta-egoeran ez dira geldirik egon. Etxean egiteko ariketak, erronkak eta probak bidali dizkiete prestatzaileek. Eta nahiz eta denboraldia amaitutzat eman, lanean jarraitzeko eskaera egingo diete LOKEko kideek eta itxialdian egin moduan, ariketak bidaliko dizkiete. "Gure gimnastak etxean lan egitera animatuko ditugu, haien esfortzu eta lanarekin lortu zutena gal ez dezaten", adierazi du Ruedak.

LOKE elkartera

Gainera, Gobernuak normaltasunerako bidea zehaztu eta udala kirol instalazioak pixkanaka irekitzen hasi arren, LOKEko atal guztiak irailean "normal" lanean hastea espero dute. Izan ere, gimnastikako



Taldean zein bakarka ederki ari ziren lehiak LOKEko gimnastak. LOKE GIMNASIA

ataleko arduradun izateaz gain, Maite Rueda LOKEko lehendakari ere bada.

Udal kirol instalazioak fase ezberdinean irekiko direla aipatu digu Ruedak. "Kiroldegiaren kasuan, hirugarren fasean irekiko da. Edukiera mugatua izango du, %30, eta oraindik neurri guztiak zehaztu gabe daude. Baldintza horietan ezin izango dugu ohi dugun bezala entrenatu".

Atal guztietako arduradun eta prestatzaileak egoera honetatik ateratzeko gogoekin eta entrenamenduetara bueltatzeko irrikaz daudela nabarmendu du Ruedak, "Gorkak, Mari Asunek eta gure entrenatzaileek gure kirolak maite ditugu, eta saioak berriro ere eskaintzeko gogotsu gaude".

Aurten denboraldi amaierako erakustaldirik eta bazkaririk ez dela egingo ere aipatu digu:

"Txanda-pasa egingo dugu aurten, ekaina erdialdean deseskalatze prozesuan egongo gara oraindik, eta kontuan hartuta zenbat jende elkartu ohi den urtero... Ezinezkoa da".

Era berean, Gorka Aristegi judo ataleko arduradunak jakitera eman bezala, LOKEk kuotaren ehuneko bat ez kobratzearen erabakia baieztatu du. "Martxoa amaieran, entrenamendurik ez zegoen hilabeteetako kuota ez zela kobratuko adostu genuen". Beraz, atal guztietako prestatzaileek ez dute soldatarik jasoko entrenamenduak berriro hasi arte.

Hala ere, baikor dira LOKEko lagunak, eta, horregatik, Lasarte-Oriako herritarrei pazientzia izateko eskatzen diete. "Gero eta denbora gutxiago geratzen da itxialdia amaitzeko eta gure eguneroko bizitzara itzultzeko".



Udaberri txapelketan ere lehen postuetan izan ziren taldeak. LOKE GIMNASIA



Hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira Beltzak errugbi taldeko kideak. TXINTXARRI

Beltzak, zelaian egoteko irrikan

Beltzak errugbi taldeko kideek "pena handia" dute denboraldia amaitu ezin eta Aitor Uranga oroimenezkoa bertan behera uzteagatik. Nahiz eta 2020-2021 denboraldia ziurgabetasunez betea egon, borrokarako grina aurkeztu du taldeak

Nerea Eizagirre

Larrialdi egoeraren ezarpena ezusteko handia izan zen Beltzak Errugbi taldearentzat. "Ohorezko B mailako taldea liga amaitzear zegoen; baina beste mailatan denboraldi erdia besterik ezin izan zen gauzatu".

Luzerako gauza zela ikusita, "elkarte osoa alertan jarri genuen, etorkizunerako erabakiak hartzeko bilera birtualak eginez".

Erabaki horietako bat bereziki gogorra izan da taldearentzat: Aitor Uranga oroimenezkoa bertan behera uztea. "Oroimenezkoak errugbi munduan oihartzuna hartu eta kirol elkarte askok interesa agertu dute parte hartzeko. Aurten ezusteko handiak genituen prestatuta; baina ezinezkoa da egitea".

Borrokarako ohitua dagoen taldearentzat hau oztopo txiki bat besterik ez da eta hurrengo urtean oroimenezko txapelketa

"indarberrituta" aterako dela argi dute. "Prest genuena biribildu eta gauza berriak txertatuko ditugu ziur", onartu dute.

Bestelako erabakiak ere hartu zituzten. Arlo fisikoan, esate baterako, Errugbi eskolako 8 eta 14 urte arteko gaztetxoei entrenamendurik ez ezartzea adostu zuten. Horren ordez, errugbi partida eta errugbiari buruzko bideoak ikustea gomendatu zieten. "Entrenatzaileek jokalariek ezagunen biografien edo partida zaharren bideoak bidali dizkiete, azken urteetako errugbiaren bilakaera ikus dezaten".

EGOERA HONEN ONDORIOAK PAIRATU DITUZTEN TALDEKO FAMILIENTZAT JANARI BANKUA OSATU DUTE

Federatuen taldeetan, berriz, etenaldian jokalariek egoera fisikoa mantentzea finkatu zen. Ohorezko B mailako eta Euskal Ligako jokalarien kasuan, Zarautz Errugbi taldeak ezarritako lan espezifikoa zuten.

Ahaleginak ahalegin, larrialdi egoeran maila fisikoa mantentzea zaila dela nabarmendu dute Beltzak taldeko kideek. "Etxean sartuta egonda, zaila da entrenamendu fisikoa egitea".

Elkartasuna eta aisia

Bestalde, Beltzak Errugbi taldeak euren kide eta lagunei, zein herriko ostalariei laguntzeko ekimena aurrera eramane du, janari bankua.

"Egoera honen ondorioak pairatu dituzten kirolari, beterano eta bazkideen familiei laguntzeko janari banku bat osatu dugu. Horretarako, krisiak hainbeste eragin dien herriko ostalariekin lan egin dugu, asko eta asko gure babesleak baitira.

Ahal izan dugunekin harremanetan jarri eta soberakinak erosi dizkiegu, euren galera zerbait arinduz", azaldu dute taldeko kideek.

Taldeak barkamena eskatu nahi die harremanetan jarri ahal izan ez diren babesleei eta harremanetan jartzeko eskaera egiten die Beltzakek. "Ahal dugun heinean laguntzeko prest gaudela jakitera eman nahi diegu".

Beste hainbat ekimenen ere egin dituzte kirolarien arteko harremana sendotu eta umore ona sustatzeko. "Gurasoen laguntzarekin eskolako txikiek parte hartu duten bideo bat osatu dugu eta erronka dibertigarriak ere egin dira. Adinean aurrean doazenek barrabaskeriaren bat egin dute; guztia errespetuz eta umore onez, noski".

Denboraldi hasiera, zalantzak

Kirol jardunaren jarraipenari dagokionez, zalantza handiko hilabeteak bizi izan dituzte: "Noiz eta nola hasiko garen... Baina kezka horiek gizarte osoak izan ditu, ez gu bakarrik".

Egun, ordea, denboraldia amaitu dela ziur dute. "Federazio guztiek bertan behera utzi dituzte ligak eta beraz, denboraldia amaitu da eta ez da garailerik izango".

Eta pena handia dute errugbi eskolako jokalariek denboraldi amaierako ekimenenak galduko dituztelako. "Gure txikiek esate baterako ezin izan dituzte denboraldi amaieran hain dibertigarriak diren Kontxako torneorik edo guraso eta entrenatzaileen aurkako partidarik jokatu," jakitera eman dute. Hurrengo denboraldian lanean hasteko prest dira Beltzak taldeko kideak. Horregatik beste elkarreentzako kideekin bilerak egin dituzte hurrengo denboraldia prestatzeko.

"World Rugbyk formula ezberdinak aurkeztu ditu, baina Espainiako federazioak aztertu eta onartu edo moldatu behar ditu. Gerora, gainerako erakundeei jakinarazi behar dizkie", azaldu dute Beltzak taldeko kideek.

ESPAINIAKO FEDERAZIOAK WORLD ERRUGBYREN PROPOSAMENAK AZTERTU BEHAR DITU

Beraz, Euskal federazioaren zain da Beltzak. "Uda pasata, ikusiko dugu noiz eta nola hasten diren lehiaketak", adierazi dute. Aipatu neurri horien artean, errugbiari bizia ematen dioten meleak zigor-kolpe bihurtzea dago: "Eztabaida handia sortzen duen puntuetako bat da hori, gaur egungo errugbiaren ezaugarrietako bat galduko bailitzateke".

Entrenamenduak eta hirugarren denbora

Michelingo zelaian lanean hasteko irrikan daudela ere onartu dute: "Entrenamenduetan hasteko aukera izango bagenu, dudarik gabe hasiko ginatke". Hala ere, Errugbi eskolako jarduerak irailera arte etenda daudela gogoratu du.

Gainera, errugbia kontaktua da eta denbora luzean horrek entrenamendu normalak egitea eragotziko diela badakite. "Denboraldi amaiera hau zurian amaituko dugu. Gure kirolean kontaktu fisiko handia dago, azkenetarikoak izango gara lanean hasten. Hala ere, prestakuntza fisikoarekin hasi ahalko ginatke, kirol instalakuntzek hori egitea ahalbidetzen badute".

Esate baterako, Babyauto Zarautz taldean ari diren seniorrak aurki Astiko zelaian, Zarautzen lanean hasiko direla aurreratu dute. "Bakarkako entrenamenduak izango dira, segurtasun eta prebentzio neurri guztiak mantenduz."

Baina zelaiaz gaindiko kirola ere bada errugbia hirugarren denborari esker, eta, lehiaketaren antzera, ohitura honek neurri berrietara moldatu beharko duela argi dute. "Hirugarren denbora gure jokoaren zati bat da; errugbi partidak egonez gero, hirugarren denbora egongo da. Neurrietara moldatu beharko gara, baina egingo dugu; gure DNAn dago".

Diziplina, lana eta errespetua. Horiek dira errugbiaren ardatzak eta Beltzak Errugbi taldeko kideek argi dute, horiek jarraituta, tuneletik aterako direla. Horregatik eskaera bat dute herritarrentzat: "Neurriak jarraituz bakarrik gaudituko dugu egoera hau".

Era berean, COVID-19a dela-eta, senideren bat galdu duten herriko familiei taldearen "animo eta maitasun guztia" helarazi nahi diete.

Gipuzkoako gailurretara igotzeko gida berria

Txusma Perez Azaceta herritarrak 'Montes de Gipuzkoa. 95 rutas a 155 cimas' liburuaren edizio berria aurkeztu du. Mendizaleei zuzendutako liburuak gure lurraldeko gailurrak igotzeko ibilbide "errazak" erakusten ditu

Txintxarri

Duela 20 urte argitaratu zuen Txusma Perez Azaceta herritarrak (Legazpi, 1958) Iñaki Alcalde Olivaresekin batera Montes de Gipuzkoa. 95 rutas a 155 cimas (Gipuzkoako Mendiak: 95 ibilbide eta 155 gailur) liburua. Klasiko bat bihurtu da eta Sua editorialak 6. edizio eguneratua aurkeztu berri du. "Liburua etorkizuneko igoerak prestatzeko gida bat da natura maite duten pertsonentzat". Izenburuak dioen bezala, Gipuzkoako 155 gailurretan barrena egin daitezken 95 ibilbide aurkezten ditu.


"Ibilbide batzuetan hiru edo lau tontor egiten dira. Mendi katalogoan daudenak eta ez daudenak kontuan izan ditugu zenbatzean", azaldu du egileak. Ibilbideek bi ordu baino gutxiago irauten dute, eta, orokorrean, "gailur xumeak dira, "igotzeko errazak".

Bideetan barrena

Liburuaren edizio eguneratua egiteko Antxon Burcio eta Sara Carton herritarraren laguntza izan du egileak. Haiekin batera, ibilbide guztiak berregin eta gailurretako argazkiak ateratu ditu. "Edizio berri honek Gipuzkoako mendiak berriro igotzeko eta gure geografiaz gozatzeko aukera eman digu", azaldu du Perez Azaceta.

Izan ere, idazleak nabarmendu moduan, "Gipuzkoako herritarrak erakartzen dituzten gailur hauek, mendien edertasuna eta erakargarritasuna garaierarekin zer ikusirik ez dutela baieztatzen dute".

Hala ere, ibilbideetan barrena, azken urteetan zenbait ingurune aldatu direla zomatu du *Montes de Gipuzkoa* liburuaren egileak. "Mendian egin diren pistak paisaia moldatu dutela ikusi dugu, baina gehienak duela 20 urte igo genituen bezala daude".



Txusma Perez Azaceta irudiatzen irudia eta liburuaren portada. TXINTXARRI/SUA ARGITALETXEA

"EDIZIO BERRI HONEK GIPUZKOAKO GEOGRAFIAZ GOZATZEKO AUKERA EMAN DIGU"

Gailurrak ez baitira ohituraz mendizaleen helburu bakarra izan, egileak azpimarratzen duen bezala. "Ingurunean murgiltzeko bide bat izan dira. Bideak, herriak, ohiturak, mito eta kondairak... ezagutzeko aukera izan dira".

Baina hori galtzen ari dela azpimarratu du. Horretarako, mendizaletasunak azken urteetan izan duen garapena ekarri du gogor Lasarte-Oriatarra. "Mendizaletasuna aldatzen joan da, lehen elkarrean eskutik igotzen zen mendira, egun ohitura hori galtzen joan da eta

norberak mendi irteerak edo igoerak egiten ditu, elkarrean laguntzarik gabe".

Beste lan batzuk

Txusma Perez Azaceta beste herritar batzuekin batera, Likken aldizkaria sortu zuen, eta gaur egun Sua Edizioak argitaletxeko koordinatzailea da.

57 Rutas senderistas por Euskal Herria, Los mejores recorridos de la montaña vasca, Las otras cumbres de la montaña vasca edo *Montes desde Donostia*; Euskal Herriko mendi eta ibilbideei lotutako hainbat liburu argitaratu ditu.

Azkena, 2019ko urrian argitaratu zuen Josema Azpeitia eta Ritxar Tolosarekin batera, *Rutas y restaurantes con encanto de Gipuzkoa*. Liburuan Gipuzkoako hainbat jatetxe desberdin eta euren inguruetan egin ahal diren txango edo ibilbideak aurkezten dituzte egileak.

Hipodromoa eta zaldia, denboraldia hasteko prest

Madrilgo Zarzuelako Hipodromoa itxia dagoenez, lehen hiru saioetan *Pool* sailkapenak lehiatuko dira

Txintxarri

Donostiako Hipodromoak denboraldi berriari hasiera emango dio ekainaren 3an, Eusko Jaurlaritzak eta AEK baimena ematen badute. Madrilgo Zarzuelako Hipodromoarekin adostuta, kalitate handiko hiru jardunaldi jokatu dira ekainaren 3an, 7an eta 10ean, *Pool*eko sailkapenak.

Lehen bi saioak, ekainaren 3an eta 7an, atek itxita izango dira, baina 3. fasean, ekainaren 8tik aurrera agintariek ezarritako edukiera mugatuarekin irekitzea aurreikusten da eta egoeraren arintzearekin batera moldatzea.

Egutegia ere onartu gabe dagoen arren, ekainean asteazkeneko izango



TXINTXARRI

da jardunaldia, baita ekainaren 7an ere, igandez. Uztail eta abuztuan, berriz, igandetan izango dira hitzorduak, uztaileko lehen saioa, Urrezko Kopa eta abuztuko azken jardunaldia izan ezik. Uztailaren 3an, abuztuaren 15ean, larunbata eta 26an asteazkena izango dira. Denboraldiari amaiera emateko irailean bi saio egingo dituzte, irailearen 2an eta 6an.

Areto-futbol eta squash txapelketak, bertan behera

Areto-futboleko txapelketako taldeei izen-emate kuotaren ehunekoa itzuliko zaie

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak eta kirol elkarteak neurri-neurri egoerara moldatzeaz gain, itxialdiko hilabete hauetan etenda geratu diren edo jokatzen hasi behar ziren txapelketen patua erabakitzen ari dira. Esate baterako, Lasarte-Oriako errotuta dauden areto-futbol eta squash txapelketak bertan behera geratu dira.

Lasarte-Oriako areto-futbol txapelketak ez du aurten amaiera festarik izango. Lehengo astean,

taldeek txapelketa bertan behera geratzen dela jakin zuten.

Txapelketa baliogabetzat eman dute antolatzaileek eta ez da irabazlerik izango. Hori dela eta, antolatzaileek parte-hartzaileei izen-ematearen zati proportzionala bueltatuko diete taldeei.

Squash txapelketa sozialik ere ez da izango. Txapelketako izen-ematea ezin izan zen guztiz gauzatu: martxoaren 20an amaitzen zen epea eta ez dute dataz aldatzea aurreikusiko.

Ostadar SKTk Internet bidez egingo du aurretiko izen-ematea

Ostadar SKTk 2020-2021 denboraldirako aurreinskripzioa egiteko epea irekiko du. Klubeko jokalariek eta bertan hasi nahi duten guztiek ekainaren 1etik 21era arte dute izapidea egiteko. Gaur egun bizi dugun egoera dela eta, www.ostadarskt.eus

webgunean bakarrik egingo da aurretiko izen-ematea. Geroago, klubeko kirol atal bakoitza bere kirolariek harremanetan jarriko da informazio zehatzagoa emateko.

Aurreinskripzioarekin zalantzarik edo arazorik duten herritarrek Geltoki kalea 25ean duen bulegora hurbildu daitezke. Izan ere, ekainaren 1etik aurrera 17:00etatik 19:00etara irekiko baitu Ostadarrek bulegoa.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Maddi
Zorionak gure printzesa!
7 urte zoragarri zure
ondoan! Askok maite
zaitugu! Oier, Unax, aita
eta ama.




Eñaut
Zorionak Eñaut! Ondo
ospatu zure 17.
urtebetetzea, bihotzez.
Oier, aitona eta amona
eta familiaren partetik,
besarkada handi bat.




Idoia
Zorionakkkkk!!!! Oso
ondo pasa eta asko
gozatu familia eta lagun
artean. Zure lagunen
partetik.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 29




Larunbata, 30




Igandea, 31




Astelehena, 1




Asteartea, 2



Asteazkena, 3



Osteguna, 4



JAIOTZAK

Xune Carte Ortega. Maiatzaren 17an.

HILDAKOAK

Juan Garcia Lopez. Maiatzaren 26an.

Miguel Gestoso Mayor. Maiatzaren 26an.

Carolina Teijon Ferro. Maiatzaren 25ean.

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO: 646 82 44 66
edo PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 29	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 30	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 31	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 1	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 2	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 3	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 4	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLEDGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Posta bidezko bozka

Uztailaren 12an, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak ospatuko direla eta, Lasarte-Oriako hainbat alderdi politikoek posta bidezko botoa tramitatzeko laguntza eskaini diete egun horretan bozka ematera joan ezin diren herritarrei. Uztailaren 2ra arte egin daitezke.

EAJk bi bide jarri ditu herritarren eskura: 943 363 409 telefonoa eta 652 706 820 WhatsApp zenbakia. Posta bidezko bozka erabiltzeko asmoa duten herritarrek izen-abizenak, NAN zenbakia, jaiotze-data eta botoa emateko dokumentazioa jaso nahi duen posta-helbidea adierazi beharko dute.

PSE-EEk bere egoitzan, Gambo 1 behean, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara eskainiko du laguntza zerbitzua. Beste ordutegi batean egin ahal izateko hitzordua eskatu beharko da. Gaixo edo etxetik mugitu ezin diren herritarrek, notarioak ziurtatuta etxetik egin ahalko dute bozka. Tramitazio hori egiten ere lagunduko dute alderdi sozialistako kideek. Argibide gehiago eskuratzeko edo zalantzak argitzeko 943 372 869 telefonoa jarri dute herritarren eskura.

SUDOKUA

3				8			
	2	7	6	1			
8				4	2		7
9	5	4		6		2	
				9			5
	6	1			5		7
		2		8		1	
4	8			6			2
		9	4	2			3
							8

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA

Lasarte-Oriako bi neska gazte gara; udaran haurrak zaintzeko prest gaude. Haurrek udaran eskolako errefortzu lanak egin nahi balitzukete ere prest egongo ginatete laguntzeko. Deitu edo bidali whatsapp bat zenbaki hauetara: 688 777 280 edo 610 325 280.

Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuetarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN

Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. 943 376 115/615 645 126

SALEROSKETAK

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 300 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

GUTUNAK

UDALTZAINGOAREN JARDUKETA BATEN INGURUKO IDATZIARI BURUZ

Joan den astean Lasarte-Oriako Udaltzaingoaren jarduketa baten inguruan zenbait komunikabidetan leporatze batzuk argitaratu ziren. Adierazi nahi dugu idatzi horretan jakitera eman zirenak ez direla zehatzak eta ez datozela bat gertatutakoarekin.

Jarduketa horretan esku hartu genuen agenteok argi utzi nahi dugu uneoro norberaren babes material egokia erabili genuela, Udaltzaingoak ohitura duen legez.

Idatzian aipatzen den 25 urteko alabaren baimenarekin sartu ginen mezuaren egilearen etxean, inolaz ere ez, pentsatzekoa denez, baimenik gabe.

Azpimarratu nahi dugu elkarrenganako tratua erabat bidezkoa eta gizalegezkoa izan zela bi aldeean partetik.

Eransteke gehiagorik gabe, ekintza hartan esku hartu zuten agenteak.


Gutunak bidaltzeko

Posta elektronikoa

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, NAN zenbakia eta nahi duzun testua.

Osteguneko 12:00ak arte jasotako gutunak argitaratuko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:30	11:40	11:45	11:50
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

- 12 plaza erabilgarri izango ditu.
- Segurtasun tartea mantendu beharko da.
- Autobus barruan nahitaezkoa izango da maskara, eta erabiltzaile bakoitzak bera eraman beharko du
- Txartelarekin bakarrik ordaindu ahal izango dute

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Udalekuak eta Udako Txokoak

Ttakun Kultur Elkartea

Ezer baino lehen, Ttakunek animo eta babes mezu bat bidali nahi dizue Lasarte-Oriako familiei, Covid-19aren osasun-krisiak eragindako egoera zail hau bizitzen ari garen honetan.

Badira ia hiru hamarkada, udaro, Ttakunek bere irudimena abiarazi eta herriko txiki zein gazteei aisialdi hezitzaile bat eskaintzen bere indar guztiak jartzen dituela. Horretan harrapatu gintuen alarma egoerak eta egoerak zenbat iraungo zuen jakin gabe izen emateari eutsi genion moldaketak eginez, eta moldaketari egokitzeko ahalmena erakutsi zenuten Lasarte-Oriako familiek. Ordutik, udaran egin daitezkeen jardueren inguruko irizpideak zeintzuk diren jakiteko lanean gabilta, eta hainbat erakunde

publiko eta aisia taldeekin hitz egin ondoren ez dugu irizpide zehatzik jaso. Hau horrela izanik ere, erabaki bat hartzeko ordua iritsi dela uste dugu. Erabakia zaila izan da, udalekuek zein Udako Txokoek familien bizitzaren antolaketan zein haurren euskalduntze eta garapen prozesuan garrantzia dute eta azken unera arte egon litezkeen aukera desberdinak aztertu arren, udaleku itxiak eta kanpaldiak bertan behera uztea erabaki dugu, eta Udako Txokoekin moldaketak eginda aurrera egitea.

Udako Txokoek jarraituko dute beraz, debekurik ez bada, baina ezingo dira betiko Udako Txokoak egin eta horregatik moldaketa lan horietan eskua luzatu nahi diegu herriko eragileei, familiei eta udalari prozesu berri hau diseinatzeko.

Aurrera egingo dugu argi dugulako udalekuak ezinbestekoak direla haurren garapen prozesuan, bereziki aurten etxeko txikiak eta gaztetxoak gogor kolpatu baititu itxialdiak. Behar emozionalak, afektiboak eta sozialak asetzeari denon ardura da eta beraiei adinkideekin bizipenak elkar bizitzeko irrikan egongo dira. Ezin ahaztu ere familien kontziliatzeko beharrak.

Haurrak, familiak eta hirugarren ardatza, gure begiraleak. Aipamen berezi bat egin nahi dizuegu. Garai batean udalekuetako haurrak izan zinetenak eta zuen emozio guztiak egungo txikiekin konpartitzeko irrikan zaudetenak. Denon segurtasuna eta beharrak bermatu nahian gabilta, Udako Txokoetan gogoz lanean jarrai dezazuen.

Gertutasunak inoiz baino garrantzia handiagoa hartu du egun hauetan, gertutasun fisikoaren ezintasunetik harago, gertutasun modu berriak garatzera iritsi arte. Ttakunek hizkuntzan oinarritzen du bere jarduna, baina Lasarte-Oriako herriarengandik hurbil egonda landu nahi dugu hizkuntza. Familiengandik, merkatariegandik eta udalarengandik hurbil egonez, eta beraiekin elkarlanerako zubiak eraikiz. Izan ere, zubiak bi aldetatik eraikitzen direnez, Ttakun Kultur Elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu guran jarritako konfiantzagatik eta izandako pazientziagatik, eta aurten ere Udako Txokoetan gurekin arituko zaretela espero dugu, hutsunearen gainean zubiak eraikiz. Guk lanean jarraituko dugu herrigintzan,

haurrak erdigunean jartzen dituen euskarazko aisia eskaintza osatzen eta zuengana helarazten.

Besarkada bero bat jaso ezazue eta etxeko txikiei helarazi. Pausoka eta poliki, laster, herriko plazetan elkartuko gara.



2019 eta 2020an
jaiotako haurrak

HAURRESKOLAK

LASARTE-ORIAKO
ANDREJOAKINA HAURRESKOLA

Izena emateko epea:

Matrikula online:
Maiatzaren 21etik ekainaren 8ra

Aurrez aurrekoa:
Ekainaren 1etik 8ra
Aurrez aurreko ordutegia:
9:00etatik 14:00etara



www.haureskolak.eus

Kalbario bidea, 2 Tel: 943 36 72 38
andrejoakina.lasarte-oria@haureskolak.eus

Zuk jolasa ikusten duzu.
Guk bere garapenean ere laguntzen dugu.



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

AURREMATRIKULA
Ekainaren 1etik 19ra (biak barne)
nola egin?



- on-line: ikasgunea.euskadi.eus
- Ikastetxean: txanda hartuta:

943364600

DOKUMENTAZIOA:
NAN eta Ikasketa espedientea

Informazio gehiago: www.lhusurbil.eus